

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1771

**9/2010 FORU DEKRETUA**, Diputatuen Kontseiluarena, martxoaren 9koa; honen bidez onartu egiten da garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzen lagunduko duten inbertsioen komunikazioaren eta egokitasun ziurtagiriaren araubidea, Sozietateen gaineko Zergan xedatutako kenkarietarako.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren bitartez pizgarri gehiago ezarri ziren garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzea xede duten lehentasunekoztat jotako jarduera batzuetarako.

Hain zuzen ere, 24/1996 Foru Arauko 44. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezarri zen Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak ondoko bost eremuetan ziurtagiria eman behar duela kenkaria aplikatu ahal izateko:

- a) Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.
- b) Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.
- c) Naturguneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.

d) Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

e) Energia berriztagarrien erabilera eta energia eraginkortasuna.

Hori Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuko 30. artikuluan garatu da: bost eremuetako egitate kasuak zehaztu dira eta prozedura batzuk ezarri dira, arau bidez behar bezala garatu behar direnak.

Hain zuzen ere, horrexetarako eman da foru dekretu hau, beraren xedea komunikazioaren eta egokitasun ziurtagiriaren araubidea ezartzea baita. Besteak beste, subjektu pasiboek kenkaria sor dezakeen inbertsioak ekarriko duen ingurumenaren sustapena edo hobekuntza frogatzeko prozedura eta aurkeztu beharreko agiriak ezarri dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatu eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

1. artikulua. Helburua.

Foru dekretu honen helburua garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzeko proiektuetarako korranteak ez diren aktibo berrietan egindako inbertsioen komunikazioaren eta egokitasun ziurtagiriaren araubidea ezartzea da, Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek kenkariak aplikatu ditzaketenean argitzeko.

2. artikulua. Definizioak.

1. Ingurumen sustapena.

Proiektu baten ingurumen sustapena hauxe da: proiektuak ingurumena hobetzea edo garapen iraunkorra, ingurumenaren zaintza eta hobetzea eta energia iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa lortzen laguntzea, Sozietateen gaineko Zergan ezarritakoarekin bat etorritik.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1771

**DECRETO FORAL 9/2010**, del Consejo de Diputados de 9 de marzo, que regula el Régimen de la Comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental de las inversiones que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, a los efectos de la deducción prevista en el Impuesto de Sociedades.

Mediante Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, se reforzó la incentivación de determinadas actividades consideradas prioritarias y tendentes a procurar el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de las fuentes de energía.

En concreto, en la letra b) del apartado 2 del artículo 44 de la Norma Foral 24/1996, se especifican cinco ámbitos sobre los que el Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava, debe emitir certificado para la aplicación de la deducción:

- a') Minimización, reutilización y valorización de residuos.
- b') Movilidad y Transporte sostenible.
- c') Regeneración medioambiental de espacios naturales consecuencia de la ejecución de medidas compensatorias o de otro tipo de actuaciones voluntarias.
- d') Minimización del consumo de agua y su depuración.
- e') Empleo de energías renovables y eficiencia energética.

Este aspecto ha sido desarrollado en el artículo 30 del Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, definiendo los supuestos de hecho de los cinco ámbitos citados y estableciendo unas determinaciones procedimentales que necesitan un adecuado desarrollo reglamentario.

A tal fin responde el presente Decreto Foral, cuyo objeto es la regulación del régimen de la Comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental, estableciendo entre otros aspectos el procedimiento y la documentación que el sujeto pasivo debe aportar para demostrar la mejora ambiental o adicionalidad ambiental que supone la inversión objeto de la posible deducción.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria y el emitido por la Comisión Consultiva.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

## DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

El presente Decreto Foral tiene como objeto la regulación del régimen de la Comunicación y del Certificado de Idoneidad Ambiental de las inversiones realizadas en activos no corrientes nuevos que efectúe el sujeto pasivo en proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, a los efectos de la posible aplicación de las deducciones contempladas en el Impuesto sobre Sociedades en esta materia.

Artículo 2. Definiciones.

1. Adicionalidad ambiental.

Por adicionalidad ambiental de un proyecto se entiende la mejora ambiental o aportaciones que dicho proyecto genera en el camino hacia el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía, contempladas en el Impuesto sobre Sociedades.

Ingurumen sustapena kontuan edukitzeko, zergadunak frogatu behar du iraunkortasunaren, ingurumen zaintzaren edo energiaren aprobetxamenduaren hobekuntzaren onurak benetakoak direla eta ez lirakeela lortuko inbertsioa, kenkaria sor dezakeena, egin gabe. Ildo honetatik, ingurumen egokitasunaren ziurtagiria lortzeko aurkeztu behar den memorian «Oinarrizko egoera» deritzona finkatu behar da, hau da, kenkarirako erabili nahi den inbertsioa egingo den proiektuak eragingo dion egoera, proiektuari ekin aurre-aurreko zergaldikoa, edo baliatuko den soluzioaren aurrerapen teknikoaren maila estandarra, eta gero hortik abiatuta lortu nahi den ingurumen hobekuntza zehaztu behar da.

Nahitaezko legezko betekizunik egonez gero, horietatik eratu dute «Oinarrizko egoera»; hala denean, haiek betetzea ez da inondik ere hartuko ingurumen sustapentzat.

2. Baliagarri dauden teknika hoberenak.

«Baliagarri dauden teknikarik hoberenak» dira jardueren eta haien ustiapen modalitateen faserik aurreratu eta eraginkorrenean daudenak, hain zuzen ere emisioen gehieneko muga ez gainditzeko eta, ahal dela, emisioak erabat murrizteko eta ingurumenean eta pertsonen osasunean duten eragina ahalik gehiena txikitzeko gauza direnak.

Horretarako ingurumen egokitasunaren ziurtagiria lortzeko behar den komunikazioa aurkeztean baliagarri dauden erreferentziak agiriak erabiliko dira: adibidez, «Best Available Techniques Referente Document» (BREF).

3. artikulua. Komunikazioa.

1. Zergadunak kenkaria aplikatuko den lehen zergaldia amaitu aurretik aurkeztu behar dio kenkariaren aplikazioari buruzko komunikazioa (Sozietateen gaineko Zergaren Araudia onartu duen abenduaren 10eko 60/2002 Foru Dekretuko 30. artikuluko 3. idatz zatian ezarritakoa) Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailari. Komunikazio bat aurkeztu behar da autolikidazioan kenkaria aplikatzeko eskubidea emango duen inbertsio proiektu bakoitzeko. Komunikazioa egiteko foru dekretu honen eranskinetako ereduak erabili behar da.

2. Komunikazioarekin batera foru dekretu honetako 6, 7, 8 eta 9. artikuluetan aipatzen diren agiriak aurkeztu behar dira.

4. artikulua. Inbertsio proiektuen ingurumen sustapena.

Foru dekretu honetako 6, 7, 8 eta 9. artikuluetan aipatzen diren agiriak gutxienez aurkeztu beharrekoak dira. Haiek aurkeztearekin batera subjektu pasiboak inbertsio proiektuaren ingurumen sustapena frogatu behar du, eta frogatu ere ondoren kasu bakoitzerako zehaztuko den bezala:

1. Hondakinak minimizatzea, berrerabiltzea eta balioztatzea.

Halakotzat joko dira hondakinak, norberarenak zein besteenak, murrizten dituztenak, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta hura garatu duen arautegian ezarritako definizioen arabera. Horretarako, balioztatzea da hondakinak birziklatzea (konpostajea eta biometanizazioa barne direla) eta energia sortzeko erabiltzea.

Inbertsio proiektuaren ingurumen sustapenaren berri emateko, inbertsioa egiten duen subjektu pasiboak hondakinak (bereak zein besteenak) zenbat murriztu diren zehaztu behar du, erreferentzia moduan «Oinarrizko egoera» hartuta. Sustapena adierazteko aktiboaren ezarpenak erabili beharreko baliabideen murrizpenean edo hondakinen sorkuntzan edo materia zikloen itxieran eragin duen hobekuntza zehaztu behar da.

Hona kasuak:

- Minimizatzea: Adierazi behar da ekoizpen prozesua zein den eta nola eta zein teknikarekin lortzen den minimizatzea.

- Berrerabiltzea: adierazi behar da nolakoak diren materialak, nondik datozen, nola tratatzen diren eta zertarako diren.

- Birziklatzea: adierazi behar da hondakinak nondik datozen, nola eraldatzen diren eta zertarako erabiltzen diren.

Para que se tenga en cuenta la adicionalidad ambiental, el contribuyente ha de demostrar que los beneficios de sostenibilidad, ambientales o energéticos son reales y no se obtendrían sin la inversión concreta, cuya deducción se pretende. En este sentido, en la memoria que ha de aportarse para la obtención del Certificado de Idoneidad Ambiental, se establecerá una «Línea Base» que recoja la realidad en la que vaya a incidir el proyecto con la inversión cuya deducción se pretende, referida al período impositivo anterior al primero en que comience la ejecución del proyecto o el nivel estándar del progreso técnico de la solución a utilizar, y respecto de aquella «Línea Base» se concrete la mejora ambiental que se espera obtener.

En caso de existir requisitos legales de obligado cumplimiento, estos constituirán la «Línea Base», no pudiendo considerarse en ningún caso como adicionalidad ambiental solo dicho cumplimiento.

2. Mejores Técnicas Disponibles.

Se entiende por «Mejores Técnicas Disponibles», la fase más eficaz y avanzada de desarrollo de las actividades y de sus modalidades de explotación, que demuestren la capacidad práctica de determinadas técnicas para constituir, en principio, la base de los valores límite de emisión destinados a evitar o, cuando ello no sea posible, reducir en general las emisiones y el impacto en el conjunto del medio ambiente y de la salud de las personas.

A tal efecto se utilizarán los documentos de referencia (tales como «Best Available Techniques Referente Document» -BREF-) que se encuentren disponibles en el momento de presentar la comunicación para la obtención del Certificado de Idoneidad Ambiental.

Artículo 3. La Comunicación.

1. El contribuyente deberá realizar la comunicación de aplicación de la deducción prevista en el apartado 3 del artículo 30 del Decreto Foral 60/2002, de 10 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento que regula el Impuesto sobre Sociedades, al Departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava con anterioridad a la finalización del primer período impositivo en el que aplique la deducción y de forma individualizada para cada proyecto de inversión sobre el que prevea aplicar la deducción en la correspondiente autoliquidación. Dicha comunicación se efectuará mediante el modelo contenido en el Anexo de este Decreto Foral.

2. Junto a la comunicación se acompañará la documentación que se detalla en los artículos 6, 7, 8 y 9 de el presente Decreto Foral.

Artículo 4. Adicionalidad ambiental de los proyectos de inversión.

Con la documentación requerida en los artículos 6, 7, 8 y 9 del presente Decreto Foral, que tiene un carácter de mínimo, el sujeto pasivo deberá demostrar la adicionalidad ambiental del proyecto de inversión, tal y como se define seguidamente para cada supuesto:

1. Minimización, reutilización y valorización de residuos.

Se considerarán como tales los que procuren una reducción de residuos, propios o de terceros, conforme a las definiciones contenidas en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, y su normativa de desarrollo. A estos efectos se entenderá por valorización tanto el reciclaje, incluidos compostaje y biometanización, como la valorización energética.

El sujeto pasivo que realice la inversión informará sobre la adicionalidad ambiental del proyecto en la reducción de la cantidad de residuos, ya sean residuos propios o de terceros, sobre la Línea Base. La misma se expresará en función de la mejora que ha supuesto la implantación del activo en la reducción de recursos a utilizar o en la prevención en la generación de residuos o en el cierre de ciclos de materia.

Se atenderá a los siguientes supuestos:

- Minimización: con expresión de cuál es el proceso productivo en el que incide, de qué manera y con qué técnica se produce la minimización.

- Reutilización: con expresión de naturaleza de los materiales, origen, tratamiento y destino de los mismos.

- Reciclaje: con expresión de origen, transformación a la que es sometida y destino de los mismos.

- Balioztatzea: adierazi behar da hondakinak nondik datozen, zein teknika erabiltzen diren balioztatzeko eta nolako etekin energetikoa lortzen den.

## 2. Mugikortasuna eta garraio iraunkorra.

Halakotzat hartzen dira emisio kutsagarriak murrizten dituztenak, haien legezko definizioaren arabera, edo erregai fosilen kontsumoa murrizten dutenak.

Kenkaria aplikatu ahal izango da ondoko epigrafeetan aipatzen diren inbertsioek edo jarduketek sortzen duten ingurumenaren sustapenagatik edo hobekuntzagatik:

a) Erregairik behar ez duten ibilgailuetan edo gasik emititzen ez dutenetan inbertitzea.

b) Energia aurrezten eta CO<sub>2</sub> emisioak murrizten laguntzen dutenak. Aurrezpena edo murrizpena ingurumen eraginkortasuna edo ekoeraginkortasuna etiketatzeko eta homologatzeko indarrean dagoen «Ibilgailu ekologiko hobetua (VEM)» sistemaren bitartez frogatu behar da, abuztuaren 2ko 837/2002 Errege Dekretuan eta 2005/55/CE Zuzentarauan ezarritakoarekin bat etoriz. Proiektua burutzeko erabili behar diren turismo motako ibilgailuen erregaiekin kontsumoaren eta CO<sub>2</sub> emisioen etiketa eraginkortasun energetikoaren eta gasen murrizpenaren maila altuenak dituenak izan behar da, borondatezko A etiketaren parekoa. Gainerako garraio ibilgailuek «Ibilgailu ekologiko hobetua (VEM)» homologazioa behar dute.

c) Sektoreko legeriari lotuta dauden mugitzeko edo garraiatzeko beste modu batzuk, lurgainekoak zein itsasokoak.

d) Aktiboetan egiten diren inbertsioak, hain zuzen ere enpresaren mugikortasun iraunkorra sustatzen dutenak, enpresak dituen «mugikortasun iraunkorreko planak» edo «garraio planak» gorabehera.

Modu objektiboan frogatu behar da kenkaria aplikatzeko proposatzen den proiektuak atmosferaren babesa hobetuko duela eta energiaren kontsumoa murriztuko duela.

3. Naturguneetako ingurumena leheneratzea, konpentsazio neurriak edo bestelako borondatezko ekintzak gauzatzearen ondorioz.

Hain zuzen ere, ekosistemen egitura eta funtzionamendua leheneratzea eta ondorioz naturguneen ingurumen kalitatea hobetzea.

Kenkariaren oinarriaren barruan leheneratze jardueretan izandako gastuak daudela iritziko da, jarduera horiek administrazio ebazpen batean jaso diren borondatezko konpentsazio neurriak gauzatzearen ondorioz nahiz natura ingurunean eragina duten eta inbertitzailearen aktibo ibilgetuaren osagai diren edo izango diren borondatezko bestelako ekintzen ondorioz egiten direla.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea sortuko du inbertsioen bidez ingurumena hobetzeak; inbertsioen xedeak ondokoak izan behar dira: natur ondarea eta ingurumen zerbitzuak hobetzea (eremuak lehengoratzeko, biodibertsitatea sustatzea) eta ekosistemen funtzionamendu ekologikoa hobetzen duten jarduerak egitea. Naturguneen ingurumen kalitatearen hobekuntza kopuruetan edota datu kualitativoetan islatzen diren ekintzen bitartez gauzatu behar da. Hori dela eta, proiektuak eragiten diren naturguneetarako egokiak diren adierazkariak erabili behar dira. Adierazkari bidez hasierako egoera eta amaierakoa alderatuko dira.

Naturgunea lehengoratzeko baso berritzeak egingo badira, espezie autoktonoak landatu behar dira, Mendiei buruzko martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauan ezarri den bezala. Proiektuak biodibertsitatea hobetzen badu, aintzat hartu behar dira Arabako Lurralde Historikoan floraren eta faunaren kudeaketarako indarrean dauden planak.

## 4. Ur kontsumoa minimizatzea eta ura araztea.

Legez arazteaz ezarritako betebeharekiko edo inbertsioaren aurreko ur kontsumoarekiko hobekuntza dakarten jarduketak eta inbertsioak hartuko dira kontuan.

- Valorización: con expresión de origen, tecnología utilizada para la valorización y rendimientos energéticos obtenidos.

## 2. Movilidad y transporte sostenible.

Se considerarán como tales los que consigan una reducción de emisiones contaminantes, conforme a su definición legal, o bien supongan una reducción del consumo de combustibles fósiles.

Será deducible la adicionalidad o mejora ambiental de aquellas inversiones o actuaciones que se incluyan en los siguientes epígrafes:

a) La inversión en medios de locomoción que no precisen combustibles o que no emitan gases.

b) Aquéllos que posibilitan la reducción de consumo de energía y de emisiones de CO<sub>2</sub>. La misma se acreditará mediante el sistema vigente de etiquetado de eficiencia ambiental o ecoeficiencia y de homologación de «Vehículo Ecológico Mejorado (VEM)», según lo previsto en el Real Decreto 837/2002, de 2 de agosto, y en la Directiva 2005/55/CE. Para los vehículos tipo turismo que sean necesarios en la ejecución aplicada del proyecto, la etiqueta de consumo de combustible y emisión de CO<sub>2</sub> admitida será la que presente valores máximos de eficiencia energética y reducción de emisión de gases, equivalentes a la «etiqueta A» de carácter voluntario. Para el resto de vehículos de transporte se precisará la homologación como «Vehículo Ecológico Mejorado (VEM)».

c) Otros modos de movilidad o transporte que puedan estar sujetos a legislaciones sectoriales, considerando tanto los modos terrestres como los marinos.

d) Aquellas inversiones en activos que permitan fomentar la movilidad sostenible de la empresa, con independencia de que cuenten con «planes de movilidad sostenible» o «planes de transporte de empresa».

Los proyectos que se propongan para la deducción deberán demostrar objetivamente la mejora que suponen para la protección de la atmósfera y la reducción del consumo de energía.

3. Regeneración medioambiental de espacios naturales consecuencia de la ejecución de medidas compensatorias o de otro tipo de actuaciones voluntarias.

Se consideran como tales aquéllas que, a través de la restauración de la estructura y funcionamiento de los ecosistemas, permitan mejorar la calidad ambiental del medio natural.

Se entenderán incluidos en la base de la deducción los desembolsos en actividades de regeneración que se realicen, bien a consecuencia de la ejecución de medidas compensatorias no obligatorias que hayan sido recogidas en una resolución administrativa, o bien a resultas de otro tipo de actuaciones voluntarias que incidan sobre el medio natural y que formen o vayan a formar parte del activo inmovilizado del inversor.

Será deducible la mejora ambiental de las inversiones dirigidas a la mejora del patrimonio natural y los servicios ambientales, mediante la regeneración de espacios, el fomento de la biodiversidad y, asimismo, a aquellas acciones que permitan la mejora del funcionamiento ecológico de los ecosistemas. La mejora de la calidad ambiental del medio natural se materializará con acciones que tengan reflejo en datos de carácter cuantitativo y/o cualitativo. Para ello, se manejarán indicadores que sean adecuados a tal fin, para el medio natural o el espacio natural sobre el que se actúa. Estos indicadores servirán para contrastar la situación respecto del estado de partida.

En el caso de que la regeneración suponga repoblaciones forestales, éstas deberán realizarse con especies autóctonas, atendiendo a lo previsto en la Norma Foral 11/2007, de 26 de marzo, de Montes. En el supuesto de la mejora de la biodiversidad, se tendrán presentes los planes de gestión de flora y fauna vigentes en el Territorio Histórico de Alava.

## 4. Minimización del consumo de agua y su depuración.

Se considerarán como tales aquéllas actuaciones o inversiones que supongan una mejora, bien respecto de sus obligaciones legales de depuración, o bien respecto de los consumos de agua previos a la inversión.

Ur kontsumoko aurrezpen eta arazketatzat, instalazioetan aurre-rakuntza teknologikoak ezartzeko egindako inbertsioaren ondorioz lortutako emaitza hartuko da.

Inbertsioaren xedea ur kontsumoa murriztea bada, lehentasuna edukiko du instalazioaren ekoeraginkortasunak edo errendimendu handiak. Instalazioaren ezaugarrietan argi agertu behar da aurrekoa baino hobea dela ingurumenarentzat. Beraz, kontsumoaren murrizpena frogatzeko kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duen ekipoaren eta aurrekoaren errendimenduak erkatuko dira. «Ex novo» instalazioa izanez gero, puntako teknologiez hornituta egon behar da, ekoizpen errendimendu handia lortzeko ahalik eta ur gutxien kontsumituta.

Inbertsioaren xedea ura araztea bada, haren bidez ur masen kalitate ekologikoa ona izatea lortu behar da. Hori dela eta, subjektu pasiboak helburu horretarako aintzat eduki beharreko indize edo parametroen berri emango du, eta nahitaez bete beharreko parametroen eta kontrolatzen diren parametroen berri. Inbertsioak eragindako ingurumenaren hobekuntza frogatzeko, legezko betebeharrak gainditzen dituzten parametro guztien datuak adierazi behar dira. Aurreikusitako hobekuntzaren berri emango da eta, benetako datuak edukiz gero, lortutako hobekuntza zehaztuko da, erreferentzia proiektuari ekin aurreko zergaldiko egoera dela.

#### 5. Energia berriztagarriak erabiltzea.

Holakotzat hartuko dira iturri berriztagarrien baliakuntzei berez dagozkienak, beraiek sortutako energia zuzenean inbertitzailearen instalazioetan bertan kontsumitzeko nahiz banaketa sareetarako erabiltzen dela.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea emango dute bai baliabide naturalen bidez (eguzkia, geotermia, haizea, ura, biomasa) energia zein bero aprobetxamendua sortzen duten instalazioak, bai funtzionamendurako edo erosotasunerako bioerregaiak erabiltzen dituzten instalazioen ingurumen sustapenak.

Subjektu pasiboek instalazioen eta sortzen edota aprobetxatzen den energiaren berri eman behar dute eta instalazioaren edo ekipoen tamaina edo magnitudea zehaztu behar dute. Halaber, sortu eta sare-ratutako unitate fisikoen berri ere eman behar dute.

Inbertsio proiektuan ezartzen bada sortutako energia berriztagarria banaketa sareetara eramango dela, jarduera ekonomikoa garatzen den zergadunaren instalazioetan egindako inbertsioak soilik hartuko dira kontuan, eta jarduera, gainera, energia berriztagarria sortu eta merkaturatzeko ez beste bat izan behar da.

#### 6. Energia eraginkortasuna.

Energia eraginkortasuna inbertsiogilearen intentsitate energetikoa murriztea da.

Horren ondorioetarako, hauxe da intentsitate energetikoa: kontsumitutako energia kopurua produktu unitateko (energia kontsumo espezifiko) edo, zerbitzuen sektoreko enpresen kasuan, negozioen zifraren zenbateko garbiarekiko heinean (energia aurrezpena). Murrizpena edo hobekuntza kalkulatzeko erreferentzia proiektuari ekin aurreko zergaldiko kontsumoa izango da.

Kenkaria aplikatzeko eskubidea emango du energiaren erabilpenean errendimendu handiak lortzen dituzten ekipoen edo elementuen ingurumen sustapenak edo hobekuntzak, hau da, merkaturako teknologia estandarrekin alderatuta hobekuntza dakarten ekipo eta elementuenak. Horrenbestez, frogatu behar da ekipo edo elementu berriek hobekuntza ekarri dutela, hau da, intentsitate energetikoa edota energiaren kontsumoa murriztu dela (energiaren aurrezpena).

#### 5. artikulua. Enpresa berriak.

Enpresa berria sortzen bada eta ez badago haren jarduera alderatzerik ez subjektu pasiboarenarekin, ez beronen enpresa taldeko beste sozietate batenarekin, subjektu pasiboak frogatu behar du inbertsiorako hautatu den teknologia edo prozesuak ingurumen sustapena dakarrela sektoreko eredu estandarrekin alderatuta

Se entiende por ahorro en el consumo de agua y depuración el resultado obtenido como consecuencia de la inversión efectuada para implantar avances tecnológicos en las instalaciones.

En el caso de que la inversión tenga por objeto la reducción del consumo de agua, primará el principio de la ecoeficiencia o elevado rendimiento de la instalación. Las especificidades de la instalación deberán reflejar la capacidad de mejora ambiental respecto al equipamiento anterior. Por tanto, se demostrará la reducción de dicho consumo comparando el rendimiento entre el equipo objeto de deducción y la que sustituye. Si se tratara de una instalación «ex novo», la misma dispondrá de tecnologías punteras que permitan obtener altos rendimientos de producción con el mínimo consumo de agua.

En el caso de que la inversión tenga por objeto la depuración de las aguas, dicha inversión deberá contribuir a la consecución del objetivo de la buena calidad ecológica de las masas de agua. En tal sentido, el sujeto pasivo informará sobre los índices o parámetros que sean relevantes a tal fin, y, en todo caso, los parámetros de obligado cumplimiento y que sean objeto de control del vertido. A los efectos de demostrar la mejora ambiental que aporte la adicionalidad, se expresarán los datos de aquellos parámetros que mejoran sus obligaciones legales. Se informará sobre la mejora prevista y, si se cuenta con datos reales, de la mejora alcanzada, con respecto del período impositivo anterior al primero en que comience la ejecución del proyecto.

#### 5. Empleo de energías renovables.

Se consideran como tales los propios de aprovechamientos de fuentes renovables, cuya generación de energía se utilice bien para el consumo directo en las propias instalaciones del inversor, o bien, para su incorporación a las redes de distribución.

Serán deducibles tanto las instalaciones que generen energía o aprovechamiento térmico a partir de los recursos naturales (sol, geotermia, viento, agua, biomasa) como la adicionalidad o mejora ambiental de aquellas que utilicen como combustibles biocombustibles para el funcionamiento o confort de sus instalaciones.

El sujeto pasivo informará sobre las características de las instalaciones y la naturaleza de la energía que genera y/o se aprovecha y sobre la dimensión o magnitud de la instalación o equipo instalado. Asimismo el sujeto pasivo deberá informar sobre las unidades físicas generadas y aportadas a la red.

En caso de que el proyecto de inversión contemple la incorporación a las redes de distribución de la energía renovable generada, solo computarán las inversiones localizadas necesariamente en las instalaciones del contribuyente donde desarrolla su actividad económica, la cual necesariamente deberá ser distinta a la actividad de generación y comercialización de energía renovable.

#### 6. Eficiencia energética.

Se entenderá como tal la reducción de la intensidad energética del inversor.

